

janzkera eta apaindura



barrenet 17. ikastunitatea

2. maila

irakaslearena

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)

Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)

Parte-hartzailea: **Maidar Barandiaran** (AEK)

Errealizazio didaktikoa: **Xabier Elortza** (HABEko teknikaria)
Alex Mungia (HABEko teknikaria)
Agurtzane Maiz (HABEko teknikaria)

(c) HABE 2003.

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio AEKri materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Iñaki Gozalo** eta **Jose txo Sastre**.

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

- *Gorputza apaintzeko grina*. Aretxagazeta aldizkaria. 2001-01-13.
- *Oinarrizko piercingak*. Salud y medicina aldizkaria. 1997-07-17
- *Lihogintza*. Euskal Herritik saioko erreportajea. ETB

AURKIBIDEA**1. SARRERA:**

- 1. Irakaslearentzako oharrak.....3
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea.....4
- 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak5

2. ATAZAK:

- A ataza:** Apain egon nahia.....6
- B ataza:** Piercing-ak eta tatuajeak10
- C ataza:** Garai bateko jantziak.....12
- D ataza:** Gaur-biharko jantziak.....17

3. ERANSKINAK:

- 1. Ikaslearen autoebaluazio-orria.....21
- 2. Perfumea eta koloniaren arteko ezberdintasuna. Entzungaia. DB 590.....22
- 3. Betikoa da eder egon nahia. Erreportajea.23
- 4. Gorputza apaintzeko grina. Erreportajea.25
- 5. Piercing-a eta tatuajeari buruzko elkarrizketa bi gazteri. Entzungaia.29
- 6. Oinarrizko piercing-ak. Artikulua.31
- 7. Lihogintzari buruzko erreportajea.32
- 8. Kale-inkesta. Entzungaia.35
- 9. Kale-inkestaren erantzun-orria.38
- 10. Gaur-biharko jantziak. Entzungaia.DB 380539

BIDEO-PASARTEAK			
A ataza	B-3 ataza	C ataza	D ataza
1. b-p: 1.47.30	2. b-p: 1.48.55	3. b-p: 1.57.15	5. b-p: 2.10.35
		4. b-p: 2.09.09	6. b-p: 2.15.02

1. SARRERA

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Gizakiak, gaur eta antzina, janzteko eta apaintzeko dituen, eta zituen, ohituren inguruan ariko gara ikasunitate honetan zehar.

“Euskal Herritik” erreportaje saioetako bat landuko da antzina jantziak zer nola egiten ziren ikusteko. Horretaz gain, piercing-ari eta tatuajeari buruzko Euskaldunon Egunkariako artikulu bat, Aretxagazeta herri aldizkariko erreportaje bat eta bi gazteri egindako elkarrizketa biltzen duen entzungai bat ere aztertuko dira.

Bestalde, gaur egun modaz zer ulertzen den eta zer nolako garrantzia ematen zaion ere ikusiko da. Horretarako, pertsonaia ezagunei Euskaldunon Egunkariak egindako inkesta bat eta kaleko jendeari egindako elkarrizketak erabiliko dira.

Lau trebetasunek izango dute garrantzia; irakurmenak, entzumenak, idazmenak eta mintzamenak.


Irakurmenari dagokionez, Euskaldunon Egunkariako azalpen artikulu bat erabiliko da.

Entzumenari dagokionez, kazetariak egindako kaleko inkesta bat.

Idazmenari dagokionez, Aretxagazetako erreportaje baten paraleloa sortu beharko dute ikasleek. Bertan, bi gazteri egindako elkarrizketa batean esan dena islatu beharko dutelarik.

Eta azkenik, mintzamina lantzeko, berriz, mahai inguru bateko partaide gisa ari beharko dute ikasleek, bertan modari buruzko gustuak eta iritziak azaltzeko.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA:



3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

Lexikoa:

- Euskal Herritik erreportajeen: hiztegi teknikoa, tresneriaren hiztegia, prozesuaren pauso desberdinen izenak...
- Oro har lexikoa; zabala eta arrunta ikus-entzunezkoaren kasuan izan ezik.

Mintzagaiak:

- Janzteko eta apaintzeko ditugun ohiturak eta, oro har, gizartean dagoen moda.
- Piercing-ak eta tatuajeen inguruko ohiturak, arriskuak eta prebentzioak.
- Antzina oihala egiteko prozesua nolakoa zen ikusi eta baloratu.

Elkarreragina:

- Modaren inguruko iritziak eta gustuak azaldu.
- Lihoaren prozesuan zehar ematen diren azalpenak eta xehetasunak.
- Erreportajeetan azalpenak eta iritziak bereizi.

Komunikaziorako azpitrebetasunak:

- Idatzizko erreportajeetan azalpen formetan eta iritzietan erreparatzea; besteek esandakoa nola idatzi...
- Telebistako dokumentalen edo erreportajeetan azaltzen diren prozesuak ulertzea idatzizko testuen laguntzaz.
- Kronika batean denbora adierazteko loturek duten garrantzia aztertu idatzizko testu baten bidez.
- Euskalkien eta euskara estandarren desberdintasunez jabetzea testu idatziaren laguntzaz.

Gramatika eta diskurtsoa:

- Zehar estiloaren erabilera idatzizko erreportajeetan.
- Egunkari artikuluetako esaldien eta pasarteen loturaz jabetzea.
- Iritziak eta usteak emateko formak eta esamoldeak.

2. ATAZAK

A ataza: apain egon nahia

130'

Helburuak:

- Erreportajea irakurri eta ulermena frogatu.
- Egoera bat kontuan hartuta eta informazioa eskuartean izanda kronika bat idatzi.

Zertan den:

Eder egotearen historia ezezaguna kronika motz batean gaitzat harturik, kronika bat idazteko ibilbidea izango da.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10')

- Binaka jarrita, gaiarekin zerikusia duten galdera batzuei erantzunez, gaiari buruz hitz egiten hasiko dira ikasleak.
- Adituari egindako elkarrizketa (2. eranskina) entzun dezatela ea zer dioen.
- Jarraian, denen artean alderatu eta hitz egin dezatela.

Ataza (20')

- Ikasleei aipatu nola gaur gorputza zaintzeari eta eder egoteari garrantzi handia ematen bazaio ere ez dela oraingo moda aspaldiko kontua baizik. Horren berri izateko, apaintzeari buruzko testua banatu (3. eranskina) eta ahots gora irakur dezatela. Ikasle bakoitzak zati bat irakurriko du.
- Ondoren, bakoitzak beretzat irakurri eta errepara diezaiela belzturiko hitzei ea ulertzen dituen. Horietaz gain, beste hitzaren bat ulertuko ez balu, hori ere azpimarra dezala. Hona hemen belzturiko hitzak:

Ileorde: Peluca

Kasko: Burua

Hilobi: Sepultura

Ukendu: Crema

Ahur: Palma de la mano

Oinazpi: Hankazpia

Atzazal: Uña

Bekain: Bepelarra. Ceja

Limurtu: Liluratu. Seducir

Zur: Madera

Zimur: Arruga

Isurki: Liquido

Ezti: Miel

Olo: Avena

Asteme: Asto emea. Burra

Asto-saldoa: Asto-samalda. Manada de burros

Olaje: Adatsa. Cabellera

Horaila: Hori. Rubio

Basatitzat izan: Considerar salvaje

Gorotz: Simaurra. Estiércol

Txiza: Piza, gernua. Orina

Arte: Encina

Ozpin: Vinagre

Ez zen giro izango: Sería insoportable

Zorabiatu: Txoratu, Marearse

Kirats: Usain txar

Berna: Zangoa. Hanka

Josi: Bete

Baraurik: En ayunas

Aker: Macho cabrio

- Irakurri ondoren, denen artean argituko dira hitz guztiak.
- Jarraian, erreportajearen pasarteak desordenaturik dituzte ordena ditzaten.
- Ondoren, testua ordenatzeko zeri erreparatu dioten adieraziko dute.

Feedbacka (5')

- Jatorriko testua banatu eta berriro irakurriko dute ikasleek zatika, ataza hasieran egin den bezala eta, irakurri ahala, ariketa ongi egin duten egiaztatuko dute.

Gramatika eta diskurtsoa (10')

Denborazko adierazleak landuko ditugu. Horretarako, ondoko adierazleak emango dizkiegu eta narrazio txiki batean txertatu beharko dituzte (aurreko narrazioaren jarraipena da). Hori egin ondoren, narrazioa osorik banatu, zuzendu eta jarduera baloratuko dugu.

Denborazko adierazleak:

<input type="checkbox"/> Duela X urte, hamarkada, mende,...	<input type="checkbox"/> Orduan, Ordu arteko, ...	<input type="checkbox"/> Azkenaldian, ...
<input type="checkbox"/> K.a. X urtean...	<input type="checkbox"/> Garai hartan,	<input type="checkbox"/> eta azkenik, ...
<input type="checkbox"/> Antzina...	<input type="checkbox"/> X urte , hamarkada, mende geroago ...	<input type="checkbox"/> bukatzeko, ...
<input type="checkbox"/> Orain (dela) X urte, hamarkada mende,...	<input type="checkbox"/> (...)ondoren, ...	<input type="checkbox"/> Azken urteotan...
<input type="checkbox"/> Garai batean...	<input type="checkbox"/> X urtean, hamarkadan, mendean, ...	<input type="checkbox"/> Gaur egun, ...
<input type="checkbox"/> Aspaldi batean...	<input type="checkbox"/> (ekintza) gertatu zenean,...	<input type="checkbox"/> Orain ordea, ...
<input type="checkbox"/> Garai hartan,...	<input type="checkbox"/> handik X urte <u>ra</u> , mende <u>ra</u> , ...	<input type="checkbox"/> Aspaldi honetan
<input type="checkbox"/> Urte haietan,...	...	
	<input type="checkbox"/> gertaera, ekintza, ... honekin batera...	
	<input type="checkbox"/> Garai, aldi urte ... berean...	
	<input type="checkbox"/> 1787az geroztik,	

Erantzun-orria:

Duela 6000 urte, Grezian emakumezkoak jasmina edo lirio-alkoholetan bainatzen ziren, eta gorputzeko atal bakoitzak usain desberdina izaten zuen.

Kleopatrak, esate baterako, eskuak arrosa, azafran eta bioleta olioetan igurzten omen zituen, eta bere hankak berriz, almendra, ezti eta kanela lozioarekin.

Garai hartako gizonak, adibidez, naturaltasunaren aldekoak omen ziren, baina hala ere, erabiltzen zituzten lurrinak beraien ilea edo arropa perfumatzeko.

Orduko idazkietan, bestalde, mendafina aholkatzen zuten besoak eta besazpiak lurrineztatzeko, oraingo desodorantearen pareko bezala. Bularrarentzat, kanela eta eskuentzat almendra-olioa aholkatzen zuten berriz. Lurrina debekatzera ere iritsi omen ziren **garai hartan**, gazteek gehiegi erabiltzen zutelara eta.

Gerora, erromatarrei ere, ikaragarri gustatzen omen zitzairen perfumea eta beren konkisten bidez, bainila, lila eta krabelin lurrinak zabaldu zituzten Europan barrena. Lurrin sortzaileen gremioak eratu ziren eta era guztietako loreak erabiltzen zituzten. Erromatarrek greziarrek baino gehiago erabiltzen zituzten lurrinak.

Neron enperadoreak adibidez, **lehenengo mendean** arrosa uraren moda zabaldu zuen eta **gaurko** 180.000 euro gastatu omen zituen gonbidatuekin bere jauregian antolatutako oturuntza batean. Eta bere emaztearen hiletan, berriz, lurrin egile arabiarrek urte osoan ekoizten zuten lurrin guztia adina gastatuta omen zuen, azkenerako bere mandoei ere lurrina botatzen omen zien.

Azkenean, sortu berri zen eliza katolikoa gehiegikeriatzat jo zuen eta alferrik galtze hau gaitzetsi zuen. Erromatarren inperioaren erortze**arekin batera**, lurrina ere bere indarra galtzen hasi zen.

Batzuen iritziz, **gaur egun** ere zenbaiti debekatu beharko liokete hainbeste erabiltzea ; izan ere, badira kolonia ura, perfumea, desodorantea, krema usaintsuak eta abar denak batera botatzen dituztenak.

Ikusten den bezala, **betidanik** eman izan zaie garrantzia usaiei, baina esan daiteke gero eta aukera zabalagoa dagoela, bai koloniatan, eta baita lurrinetan ere.

Aspaldi honetan bada jendea kolonia edota lurrina belarriaren atzealdean botatzen duena, eta hori ez da oso egokia. Belarriaren atzealdean koipe asko dugu eta koipe hori izerdiarekin nahasten denean usain txarra sortzen da, eta horri kolonia edota lurrina gehitzen badiogu, are okerragoa da usaina.

Hori dela eta adituek, **azken urte hauetan**, zainak bistan dauden tokietan botatzea gomendatzen dute: eskumuturraren behe-aldean eta belaunen atzealdean.

Bukatzeko, esan beti ere hobe dela kolonia edo lurrin gutxi botatzea asko baino.

Mendafina: hierbabuena

- Jarraian, binaka jarri eta alderatu egingo dute egindako lana ondoko galderei erantzunez:
 - Berdin bete al dituzue hutsuneak?
 - Aurrez ikusi ez dugun forma berririk agertu al da? Zein?
 - Hutsuneren batean, aukera bat baino gehiago badagoela uste al duzue? Zeinetan?

2

Atazaurrea (5')

- Eskemak egiten ohiturarik baduten galdetuko diegu ikasleei.
- Noiz eta nolakoak egin izan dituzten ere galdetuko diegu.

Ataza (20')

- Lehendabizi, eder egoteko erabili izan eta erabiltzen diren moduak aipatzen zituen narrazioaren eskema bat egingo dute ikasleek., eta horretarako, ideia nagusiak zerrendatuko dituzte, launaka jarrita. Ideia hauek esaldi soltez adieraziko dira, elkarren arteko loturarik gabe, alegia.
- Ondoren, bakarka, eskemako esaldiekin pasarteak osatuko dituzte, behar diren loturak erantsiz.

Feedbacka (10')

- Berrito launaka jarrita, elkarren artean alderatuko dute egindako lana. Gero denen artean, ongien nork egin duen ikusiko dugu.

3

Atazaurrea (10')

- Ikasleei honako hiru egoera proposatuko dizkiegu, horietako bat aukera dezaten:

1. Euskaltegirako aldizkari bat egin behar duzue, eta zuri bertan idatziko den narrazioa prestatzeko eskatu dizute.
2. Zure herriko aldizkariko zuzendariak euskaltegiko ikasleei narrazio bat idazteko eskatu dizue, hurrengo alean argitara emateko.
3. Zuen herriko ikastetxeko haurrek egiten duten aldizkarirako narrazio bat eskatu dizute

Ataza (20')

- Egoera horietako bat kontuan izanda, eta apaintzeko moduei buruz dituzten hainbat datu baliatuz, narrazio labur bat idazteko esango diegu ikasleei.

Feedbacka (10')

- Ikasle guztiek egindako narrazioa irakurriko dute, eta bozketa eginez gustukoena zein izan duten aukeratuko dute, arrazoituz, beti ere.

Atazaostea (10')

- Ikasleek idatzitako narrazioa euskaltegiko beste ikasleei emango zaie irakur dezaten. Testuarekin batera gaiari buruzko bizpahiru galdera egingo zaizkio irakurriko duenari. Eskolan presta daitezke galderak.
- Egun batzuen buruan, jaso dituzten erantzunak aztertuko ditugu denen artean.

Helburuak:

- Zehar estiloa eta estilo zuzena bereiztea
- Erreportaje bat idaztea

Zertan den:

- Aretxagazeta herri aldizkariko erreportaje bat baliatuko dugu, eredu gisa, ikasleak kazetari lanetan jartzeko. Aipatu erreportaje hori ulertu, eta dituen ezaugarriez jabetu ondoren, antzeko bat idatzi beharko dute.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10´)

Sarrera: Ez dakigu noiz sortu zen horrelakoak egiteko ohitura, baina haragia bezain zaharra dela diote batzuk; zibilizazioa ezagutzen denetik omen dago, pentsa.

Munduko tatuajerik artistikoenak Polinesiakoak izan dira betidanik, eta historiako piercing ikusgarrienak, berriz, bost mila urte baino zaharragoak diren tribuetan egiten zirenak. Zer iruditzen zaizu?

- Piercing-a eta tatuajeari buruzko irudi batzuk ikusiko dituzte ikasleek, eta binaka jarrita, horietaz hitz egingo dute. Ondoko galderari erantzungo diete:
 - Gogorak al dira irudiak?
 - Zer iritzi duzu horrelakoak egiteari buruz?
 - Piercing-ik edo tatuajerik ba al duzu?

Ataza (20´)

- Gai horiei buruzko erreportajea ikasleei banatu irakur dezaten. (4. eranskina) Irakurri aurretik ondoko galderari erantzungo diote
 - Piercing-a edo tatuajea izatea arrunta al da gaur egun?
- Ondoren, labur hitz egingo dute irakurritakoari buruz.
- Gero, bakarka, taula beteko dute erreportajetik jasotako informazioa baliatuz.
- Jarraian, bikoteka jarri, eta informazio bera bildu duten alderatuko dute elkarren artean.

Feedbacka (5´)

Azkenik, denen artean adostuko dute zer jarri behar zen atal bakoitzean.

2

Atazaurrea (10´)

- Bi taldetan banatuta, talde batek tatuajeari buruz esaten dena azpimarratuko du erreportajearen, eta besteak piercing-ari buruz dioena.

Ataza (15´)

- Jarraian, elkarrizketatuak esan duena eta kazetariak idatzi duena bereiziko dute taula batean.
- Gero, binaka, talde bakoitzeko ikasle bana, talde bakoitzean jasotako bina aipamen berridatziko dituzte; bi tatuajeari buruzkoak, eta beste biak piercing-ari buruzkoak, nor esandakoak diren adieraziz.
- Ondoren, lau aipamen horiek erreportaje moduan idatziko dituzte.

Gramatika eta diskurtsoa (15´)

- Erreportajeetan erabiltzen den zehar estiloari erreparatuko diogu. Horretarako, norbaitek estilo zuzenean esan dituen pasarte batzuk emango dizkiegu, eta zehar estiloa erabiliz, erreportaje batean kazetari batek idatziko lukeen moduan idazteko eskatuko diegu.

Feedbacka (5´)

Ariketa egiteko izan duten zailtasunari buruz hitz egingo dute. Horretarako, galdera batzuk dituzte bere liburuxkan.

Atazaostea (10´)

Erreportajeko informazioa lehendik ezagutzen al zuten hitz egin taldean.

3

Ataza (25´)

- Antzeko erreportaje bat idatziko dute bi taldetan banatuta. Horretarako, gai berari buruzko bi euskarri banatuko zaizkie, eta euskarri horietako informazioa baliatuko dute aipatu erreportajea idazteko.
Taldea bati bi gazteri egindako elkarrizketa bat emango diogu. (5. eranskina). Bertan, Piercing-ekin eta tatuajeekin izandako esperientziak kontatuko dizkigute. Entzungaia behar adina aldiz jartzea komeni da hasieran, gero transkripzioa ere erabil daiteke. Beste taldeari Salud y Medicina aldizkariko artikulua bat. (6. eranskina). Bertan, gorputzeko zulaketek sor ditzaketen arriskuen berri ematen da.
- Bukatutakoan erreportajeari izenburu egokia idatzi denen artean eta argazkiak txertatu, nahi bada.

Feedbacka (5´)

- Egindako erreportajeak irakurtzeko eskatuko diegu. Ondoren, horien artean eta hasieran irakurritakoaren artean zer nolako aldeak dauden adieraziko dute.

Atazaostea

- Erreportaje bat aukeratu, eta ados baldin badaude, herriko aldizkari batera bidaltzea proposatuko diegu.

Helburuak:

- Telebistako erreportaje bateko ideia orokorrak eta xeheak bereiztea.
- Telebistako erreportaje bateko ideia nagusiak birkontatzea.
- Euskalkien eta Euskara batuaren arteko desberdintasunei erreparatzea.

Zertan den:

Lihogintzaren prozesua azaltzen duen erreportaje bat ikusi ondoren ulermen ariketak bideratuko dira. Lehendabizi ulermen orokorrari dagozkionak, eta gero, zehaztasun gehiago eskatuz.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10')

- O! Pello Pello! Kantu herrikoia abestuko dugu denon artean. Emakumezkoek, emakumeak esaten duena, eta gizonezkoek, gizonak esaten duena abestuz; elkarrizketa moduan abestuko dugu.

Kantua:

- Neskak O! Pello, Pello! Logale nauk eta jinen nizan ohera?
Mutilak Irun ezan eta gero, gero, gero...
Irun ezan eta gero, gero bai.
- Neskak O! Pello, Pello! Irun diat eta jinen nizan ohera?
Mutilak Astalka zan eta gero, gero, gero...
Astalka zan eta gero, gero bai.
- Neskak O! Pello, Pello! Astalkatu diat eta jinen nizan ohera?
Mutilak Harilka zan eta gero, gero, gero...
Harilka zan eta gero, gero bai.
- Neskak O! Pello, Pello! Harilka diat eta jinen nizan ohera?
Mutilak Jos ezan eta gero, gero, gero...
Jos ezan eta gero, gero bai.
- Neskak O! Pello, Pello! Josi diat eta jinen nizan ohera?
Mutilak Argia dun eta, bihar, bihar, bihar...
Argia dun eta jin nizan bihar.



- Mikel Laboak abesten du kantua. Abeslaria nor den ba al dakiten galdetuko diegu ikasleei.
- Abestiak lihoaren prozesuari buruzko nolabaiteko informazioa ematen digu, pausu batzuen aipamena egiten baitu. Hori dela eta ikasleek, denen artean, gaiarekin eta kantuarekin loturik dagoen galdetegi labur bati erantzungo diote; ea abestitik zenbat informazio ateratzen duten. Irakasleak laguntza eman beharko die jarduera hau burutzeko.

GALDETEGIA

- **Emakumeak zer nahi du?**

- a) Josi.
- b) Ohera joan.
- c) Gin bat edan.
- **Pellok zer erantzuten dio?**
 - a) Lanean jarraitzeko agintzen dio.
 - b) Logalerik ez duela.
 - c) Irunera joateko.
- **Azkenean oheratu al da?**
 - a) Bai.
 - b) Ez. Bihar oheratuko da
- **Pellok hiru agindu eman dizkio emakumeari. Zeintzuk?**
 - a) Josi, astalkatu eta irun.
 - b) Irun, astalkatu eta josi.
 - c) Irun josi eta astalkatu.
- **Hiru agindu horiek pausuz pausu jarraituz zer lortzen dela uste duzue?**
 - a) Arropa egiteko eta arreorako oihala.
 - b) Espartinak edo alpargatak.
 - c) Artilezko galtzerdiak.
- **Asmatuko al zenuke hiru hitz hauen definizioa? Hiztegia behar al duzu?**
 - a) Irun =
 - b) Astalkatu =
 - c) Harilkatu=
 - d) Josi =

Erantzunak:

1b; 2a; 3b; 4b; 5a; Irun: **Ehungaia hari bihurtu**; Astalkatu: **Haria astaritan (mataza) bildu**; Harilkatu edo Harildu: **Ardatzean edo haril bat eginez haria bildu**; Josi: **Jostorratza eta hariaz oihala edo beste antzeko material baten bi zati elkarri lotu**;

Ataza (20 ‘)

- Erreportajea ikusi aurretik, lihoarekin ehuna egiteko prozesu luzearen hiru zati nagusien berri eman ikasleei.

Lihogintza: liho landaretik haria egiteko lehengaia atera. (Lihoa erein, bildu, bigundu...).

Harigintza: lehengaia hari bihurtu.

Ehungintza: hariarekin ehuna edo oihala egin.

- Bideoa ikusterakoan (7.eranskina) errepara diezaietela lihoa egiteko jarraitzen den pausuei.
- Bideoa ikusi ondoren, pausu horiek aurrez aipatzen diren hiru atal nagusietako batean ipiniko dituzte.

Erantzuna:

Lihogintza	Harigintza	Ehungintza
<ul style="list-style-type: none"> - Lihoa erein - Uzta bildu - Lihoaren hazia bereizi - Lihoa beratu edo bigundu - Lihoa lehortu edo ihartu - Lihoa jo - Lihoa trangatu - Lihoa sugastu edo ezpatatu - Lihoa txarrantxatu 	<ul style="list-style-type: none"> - Goruetan egin/aritu - Hari matazak egin - Hari matazak garbitu edo zuritu - Harilkatu edo harildu 	<ul style="list-style-type: none"> - Ehungintza tradizionala - Ehungintza industriala

- Jarraian, prozesuan erabiltzen diren tresnen izenak , eta bakoitza zertarako den adierazten duten definizioak lotu beharko dituzte.

Erantzuna:

Egurrezko makilatxo bat, 80cm ingurukoa, punta aldera burutxo bat duena eta haria iruteko erabiltzen dena

gorua

◆Liho landareari kanpoko azala kendu ondoren, orrazteko edo kardatzeko burdinazko orrazi antzeko bat

txarrantxa

◆Ehuna egiteko makina. Zurezkoak izaten ziren eta lana eskuz eta hankaz egiten zen

ehundegia

◆Lixiba egiteko ontziak ziren

tina

◆Lihoari haziak bereizteko burdinazko orrazia

garrama

◆Lihoa garramatu ondoren, azala kentzeko eta biguntzeko erabiltzen zen zurezko tresna

ezpata

◆Iruten ari den haria bihurtu eta biltzeko

ardatza

- Ondoren, bideoan ikusi duten prozesuaren laburpena irakurriko dute. Laburpen horretan pauso guztiak daude baina desordenaturik, eta ordenatu egin behar dituzte. Hiru taldetan jarri eta bakoitzak atal batekoak ordenatuko ditu. Gero, talde bakoitzak egindako lana erakutsiko die gainerakoei eta hurrenkera bat adostuko dute. Jarraian, erantzun-orria banatu eta egindako lana alderatu egingo dute.

Feedbacka (15 ‘)

Bukatzeko, talde txikitan jardueraz hitz egingo dute galdetegi bat baliatuz.

- Zer moduz moldatu zarete pausuak ordenatzerakoan?
- Gustatu al zaizue Lihoa lantzeko prozesuaren berri izatea?
- Zein zati gustatu zaizue gehien?
- Izan al duzue zailtasun berezirik ariketa hau egiterakoan?

Erantzun-orria

Lihogintza

Liho hazia erein eta lihoa hazten denean uzta biltzen zen. Soroan uzten zen lehortzen. Ondoren, liho-sortak garramatu eta hazia landaretik bereizten zen. Hazia berezi eta gero linaputzuaren edo errearen batean liho-sortak errean beratzen jartzen ziren. Bostetik hamar bat egunetara behar izaten zuen lihoak beratzen. Jarraian, lihoa linaputzutik atera eta zelaian zabaltzen zen ihartzeko. Ihartutako sortak linarrian jo behar izaten ziren egurrezko mailu batzuek. Joaz, lihoari bere azal ustela askatu eta erori egiten zitzaion. Segidan, trangaketa zetorren, kanpoko azal egurtsua apurtu egiten zitzaion eta landarearen barruko mintza agertzen zen. Hurrengo lana, Bizkaian ezpataketa eta Gipuzkoan sugasketa deitzen zutena zen. Hau da, landarea egurrezko ezpata moduko batez jo behar izaten zen, lihoari azala erabat garbitzeko. Hurrena, txarrantxa edo rastriloa pasa behar zen liho-hari gaia lortzeko; gero haria egiteko erabiliko zena. Txarrantxa ohol luze baten gainean jarritako burdinazko orrazia zen.

Esaldien ordena: 1, 4, 2, 6, 7, 3, 5

Harigintza

Lihoaren hari-gaia prest zelarik, haria egiten hasteko hari gaia goruaren puntan kurioso bildu, goru makila gerrian jarri, eta puntatik hari izpi bati tira eginez, eta honi eskuineko eskuaz bueltak eraginez, eta ezkerrekin izpiari tira eginez, txistuarekin lihoa eta behatzak bustiz, haria bilduz joaten zen ardatzean; iruten. Gero, horrela bildutako hariarekin matazak egiten ziren. Hari-mataza horiek garbitu egin behar izaten ziren, zuritzeko. Horretarako, matazak egurrezko tina batean sartzen ziren. Gainean trapu bat jartzen zitzaion pago-egurraren sutako hautsarekin, eta haren gainetik ur beroa botatzen zen matazak egosteko. Behetik isuritako ura balde batean jaso eta berriz gainetik botatzen zen. Azkenik, ehuna ehotzeko prest uzten ziren hari-pilotak. Matazak askatu, eta tira eginez, zituen korapiloak askatu egiten ziren.

Esaldien ordena: 4, 2, 1, 3

Ehungintza

Haril nahiko batzen zituztenean ehundegira eramaten ziren ehuna egiteko. Ehuleak hariak sailkatu eta hari berri honentzat egokia zen orrazia jartzen zion ehundegiarri. Gero, hari berriak, lehendabizi berdi-berdin ebaki, eta hari bakoitiak eta bikoitiak gora eta

behera ibiliko zituzten eta orrazietatik pasako zituen ehuleak, pazientzia handiz. Hariak gurutzatuz egiten da ehuna. Ehun pieza amaitutakoan, bildu eta jai egunen batean eramaten zuen bezeroaren baserrira; han, emakumearen aurrean neurtu, eta egindako lanaren ordaina jasotzen zuen ehuleak.

Esaldien ordena: 3, 4, 5, 1, 2

Gramatika eta diskurtsoa

Jatorrizko erreportajearen euskalkien presentzia nabarmena da. Guk pasarte bat aukeratu (4 . [bideo-pasarte](#)) eta honako ariketa proposatzen dugu: bizkaieraz egiten duen Jaione Isazelaiaren pasarte labur bat euskara estandarrean idaztea eta euskalki hori eta batua alderatzea.

Testua jatorrian:

Jaione Isazelaia:

Oso gaizki ikusita zeguan arreurako ehuna kanpotik ekartzea, hori ez zeguan ongi ikusita. Eta inoiz kanpotik ekartzen bazan sekulako esamesak izaten ziren, eta hori ez zeber nahi izaten eta itten zeber erak egindako arixa. Gero arrea, beste detaile bat izaten da arrea eurak eruten zeber baserritara, erak ezkontzen ziren lekura. Arreo hori erak egindako oihalak edo prendak arek erak sekula ez zituzten erabiltzen. Erabiltze zeber aurretik etxe aretan zerenak eta euronak lagatzen zeber hurrengokoendako. Gero baita esaten zan, ezkondu aurretik, itte zebela, iruten zebela arreurako arixa. Eta ezkondu ondoren (...).

Batuan:

Oso gaizki ikusita zegoen arreorako ehuna kanpotik ekartzea, hori ez zegoen ongi ikusita. Eta inoiz kanpotik ekartzen bazen sekulako esamesak izaten ziren, eta hori ez zuten nahi izaten eta egiten zuten euren egindako haria. Gero arrea, beste detaile bat izaten da arrea euren eramaten zutela baserrira, euren ezkontzen ziren lekura. Arreo hori euren egindako oihalak edo prenda horiek euren sekula ez zituzten erabiltzen. Erabiltzen zuten aurretik etxe hartan zeudenak eta eurenak uzten zituzten ondorengoentzako. Gero baita esaten zen ezkondu aurretik, egiten zutela, iruten zutela arreorako haria. Eta ezkondu ondoren (...)

- Ondoren, egindako jardueraz hitz egingo dute denen artean. Horretarako, ondoko galderez baliatuko dira:
 - Oso ezberdinak al dira euskalkia eta batua?
 - Ba al da ezer ulertzen ez den zerbait?
 - Ba al da ezer aldatzen ez den zerbait?
 - Nola ulertzen da errazago irakurrita ala entzunda?
 - Beste euskalkirik entzun al duzu inoiz?

Atazaostea (15')

- O! Pello Pello! abestiaren letra, eta aurreko pasartearen Jaione Isazelaia arreori buruz esan duena balia daitezke, garai bateko eta oraingo garaiak alderatzeko.

Helburuak:

- Entzundakoaren ulermena frogatzea
- Iritziak eta usteak igartzea
- Iritziak eta gustuak azaltzeko formei erreparatzea
- Egoera kontuan hartuta, nor bere iritziak eta gustuak ahoz azaltzea

Zertan den:

Ikasleek kalean egindako inkesta bat entzungo dute, eta bertan eman diren iritziak igarri ondoren, antzekoak sortuko dituzte.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (15 ')

- Binaka, galdetegi bati erantzungo diote gaiari sartzeko. Galdetegiari erantzundakoan, beste bikote batekin elkartuko dira, eta erantzun dutena elkarri kontatzeko eskatuko diegu. Gero, talde osoan hitz egingo dute gaiari buruz, bakoitzak erantzun duena kontuan hartuz.

Ataza (20')

- Hasteko, geroago entzungo dugun kale-inkesta (8. eranskina) bati buruzko hipotesiak egingo dituzte. Horretarako, inkestari erantzun dioten pertsonen ezaugarriak liburuxkan dituzte lagungarri. Pertsona hauen erantzunak bokadiloetan idatzirik daude eta ikasleek, bakoitzaren ondoan, esan duenaren izena idatzi beharko dute.

IKASLEAREN LIBURUXKAN

Ana eta Miren

Ike

Ines



Bi emakumezko: Donostian erosketak egiten ari zirenak	Koadrilan solasean ari zen gazte bat	Emakume bat: bankuan eserita eguzkia hartzen ari ziren koadrila batekoa
1. elkarrizketa	2. elkarrizketa	3. elkarrizketa

Erantzunak:

Moda aldatu edo ez, nire ustez, moda guk egiten dugu edo guk jartzen dugu, ezta?

Ines.

Egia esan gustuko arropa janztea gustatzen zait, eta modakoa izan ala ez berdin zait, baina beno, modatik kanpoko ezer ez dudala janzten uste dut.

Ana.

Nik ez dakit zein moda izango den, baina eskaparateetan ikusten dena izango dela pentsatzen dut, ezta?

Miren.

Hala izango da

Iker.

Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste dut kolore biziak direla udan ematen direnak. Eta beti bezala tela finak, azken urteetan linua oso modan dago eta aurten ere asko ikusiko dela pentsatzen dut.

Ines.

Nik behintzat ikusi eta gustatu egin zaidalako jarri nuen. Baina egia da gazte gehienak berdin janzten garela. Lehen gehiago bereizten zen, punkiak, pijoak, heviak,... Orain ez da hainbeste bereizten. Baina hala ere pijoak beti desberdin janzten dira.

Iker.

Nik uste modako arropa, azken finean denok janzten dugula, dendetan besterik ez dutenez saltzen, zer erremedio!!

Ana.

- Inkesta entzungo dute, eta entzuterakoan, elkarrizketatuek ematen dituzten iritziei eta usteei erreparatuko diete. Gero, liburuxkan dituzten erantzunak irakurri, eta hauetan dauden okerrak igarri beharko dituzte. Ondoren, bikoteka alderatuko dituzte erantzunak.
- Inkesta berriro entzun eta

1. Nik behintzat ikusi eta gustatu egin zaidalako jarri nuen. Baina egia da gazte gehienak desberdin janzten garela. Lehen ez zen bereizten, punkiak, pijoak, Heavyak,... denak berdinak ziren. Orain ez. Baina hala ere, pijoak beti desberdin janzten dira.
2. Egia esan gustuko arropa janztea gustatzen zait, eta modakoa izan ala ez berdin zait. Modatik kanpokoa ere janzten dut.
3. Modaz interesa inork ez daukagu. Batzuk esaten dute moda ez zaiela interesatzen, baina gero denok izugarrizko garrantzia ematen diogu itxurari eta janzteko moduari.
4. Nik uste modako arropa, azken finean denok janzten dugula, nahiz eta dendetan denetik saltzen duten, zer erremedio!
5. Nik ez dakit zein moda izango den, baina Afrikan ikusten dena izango dela pentsatzen dut, ezta?
6. Nik entzun dut "heavy"en estiloko arropak etorriko direla, baina gero eskaparateetan ez da hainbeste ikusten.
7. Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste dut kolore ilunak direla udan ematen direnak. Eta beti bezala tela lodiak, azken urteetan linua oso modan dago eta aurten ere asko ikusiko dela pentsatzen dut.
8. Ez, urtero ez!! Bestela.....! Ezin dugu urtero arropa berdinarekin ibili. Normalean, gure etxean, behintzat, uda batean erosten den arropa bi urtez edo hiru urtez behin aldatzen da.

Feedbacka (5')

- Eranskinean dagoen erantzun-orria banatu (9. eranskina) eta bakoitzak bere erantzunak zuzen ditzatela.

Gramatika eta diskurtsoa (10')

- Entzungaia iritziak eta gustuak adierazteko elkarrizketatuek erabili dituzten forma batzuk ez dira egokiak , beraz, egokiak direnekin ordezkatzeko dituzte ikasleek. Horretarako, hiru aukera izango dituzte, eta ordezkatzeko egokiena zein den erabaki beharko dute.

Erantzuna:

1. b. / 2. a. / 3. c. / 4. a. / 5. c. / 6. a. / 7. b. / 8. c. / 9. b. / 10. a.

2

Ataza (20')

- Kazetari lanetan jarriko ditugu ikasleak oraingoan. Horretarako, bakoitzak bikotekide bat bilatu beharko du. Bien artean gaia aukeratu eta hari buruzko iritziak eta gustuak eskatuz, entzungaian bezalako galdetegi labur bat prestatu beharko dute.
- Beste bikote batekin elkartu. Prestatu dituzten galderak elkarri egingo dizkiote, zein gustu eta iritzi duten adieraziz.
- Bina erantzun jasoko dituzte idatziz eta beste guztiei irakurriko dizkiete, baina nork erantzun duen esan gabe. Ea beste ikasleek asmatzen duten erantzunak norenak diren.

Feedbacka (10')

- Bukatzeko, bikoteka alderatuko dituzte entzungaiko erantzunak eta ikasleenak, ondoko galderei erantzunez:

- Erantzuterakoan isilune asko egin al dituzue?
- Bat-batean erantzun duzue, ala pentsatu egin al duzue hitz egin aurretik?
- Iritzia emateko forma bereziren bat erabili al duzue?
- Zein?

3

Ataza (20')

- Ikasle bakoitzak pertsonaia bat aukeratu eta haren paperean jarrita, modari buruzko azalpenak, gustuak eta iritziak eman beharko dituzte. Horretarako, denen artean aukeran emango zaizkien hiru egoeratako bat aukeratu. Pertsonaia gehiago behar badira, sortu bakoitzaren izaera eta estiloa (gutxi gorabehera) zehaztuz.

Atazaostea (20')

- "Gaur-biharko jantziak" izeneko jarduna entzun ([10. eranskina](#)) eta ulertu ondoren, Antton Aranburuk bertan esandakoa gaitzat hartuta, jantzien bilakaerari buruz zein iritzi duten hitz egin denen artean.

Ikaslearen autoebaluazio-orria

- **Zein atazatan ibili zara gustuen?**

- **Bi esaldi hauek zehar estilora pasa:**

1- Sarak esan du: ni etzi zurekin joango naiz ongi baderitzozu.

2- Iñakik dio: geuk zer egitea nahi duzu?

- **Zuk gustukoen duzun janzteko era eta apaintzeko era hiru lerrotan idatzi:**

.....
.....
.....
...

- **Lihoaren prozesuko atal bat hiru lerrotan azaldu:**

.....
.....
.....
...

- **Denbora loturak zeintzuk diren badakizu? Idatzi batzuk:**

-
-
-
-
-

Perfumea eta koloniaren arteko ezberdintasuna

Esataria: Jendeak gero eta kultura gehiago du, hori badakigu, baina hala ere askotan ez dugu jakiten zein den koloniaren, eta perfumearen arteko ezberdintasuna.

Arantxa: Ba, bueno hori oso erreza da, koloniak eta perfumeak, larrosarekin egina baldin badago, ba biek larrosa dute. Kolonia gertatzen dena da larrosa gutxiago daukala, larrosaren usaina gutxiago eta perfumea ba, hori izaten da ba kantitate gehiago larrosarena.

Esataria: Kontzentratuago.

Arantxa: Kontzentratuago hori da, eta hor dago diferentzia, esaten dena agua de kolonia edo bestela perfumea eta perfumeak gehiago irauten du, ba hori esentzia gehiago duelako

Esataria: Gutxiago botata ere beti gehiago iraungo du.

Margari: Ba bai, eta ba al dakizu Susana nondik datorren perfumea eta zer esan nahi duen perfumea hitzak?

Esataria: Oso aspaldikoa dela hori badakit, eta zer esan nahi duen... erretzearekin harremana ote du? Auskalo

Margari: Sustrai liturgiko eta erlijiosoa du. "Per" hitzak bitartez esan nahi omen du, eta "fume" hitzak, nahiz eta erretzearekin zer ikusia duen eman, kea,

Esataria: badu zer ikusia bai.

Margari: Kearen bitartez esan nahi du, alegia intsentsu eran erabiltzen zen hasiera batean eta tenpluetako fidelek modu horretan jasotzen zuten bere usaina, kearen bidez

Betikoa da eder egon nahia

Aspaldiko kontua da aurpegia margotzea eta edertzea. Dena den, jaso ditugun idatzi garrantzitsuenek egiptiarrei buruz hitz egiten digute.

Garai bateko Egipton gizonezkoek **ileorde** beltzak janzen zituzten, baita gorriak, urdinak eta berdeak ere. Eta ileordearen azpian **kaskoa** zuri-zuri izaten zuten; osasun-arazoengatik jokaten zuten horrela. Faraoien **hilobietan**, esate baterako, edergintzarako **ukenduak** eta henna-hautsak aurkitu zituzten. Hauts horiekin eskuetako **ahurrak** eta **oinazpiak** igurzten zituzten, eta **atzazalak** eta ilea tindatu.

Egiptiarrek desodoranteak ere bazituzten, baita **zimurrak** disimulatzeko ukenduak ere, edo ilea eta azala zaintzeko **isurkiak**. Gorputzean **eztia**, palmolia, **olo**-irina, **astemearen** esnea, Niloko **lokatz**a eta abar zabalduz zaintzen ziren. Ezaguna da, Cleopatra-k izugarri estimatzen zuela astemearen esnea edergintzarako. Popea, Neron-en emaztea ere, oso esnezalea zen. **Asto-saldoa** zuen, behar zuenean esnea pronto izateko.

Gorputzerako produktu horietaz gain, Cleopatra-ren garaian, **zurezko** eta marfilezko makiltxoak erabiltzen zituzten begiak edertzeko eta gizonak **limurtzeko**. Gaur egungo emakumeek, aldiz, khol lapitzak erosten dituzte horretarako.

Greziako emakume aberatsak ere ez ziren atzera gelditzen, oso sarri pintatzen zuten bere **ilajea**. Zer esanik ez, hainbeste hauts, olio, irin, ... batzuetan hondatu egiten zitzairen dioxosozko ilea. Indarra galdu, eta erori egiten zitzairen.

Gerora, erromatarrek beren errezetak egiterakoan, Greziakoak hartu zituzten eredu gisa. Germaniarren ilaje horaila ere oso gustukoa zuten nahiz eta germaniarrak **basatitzat** izan. Hori dela eta erromatarrek ile horia izateko esklabo galiar eta germaniarrei ilea kentzen zieten ileordeak egiteko, eta besterik ezean, **lixibarekin** garbitzen zituzten beren kaskoak.

Hondatutako ilea bere onera ekartzeko, erromatarren artean oso estimazio handia izan zuen ukendu batek; piperra eta arratoiaren **gorotza** zituen osagai, besteak beste.

Umore marroiarekin jarraituz, esan, erromatarrek hortzak zuritzeko pomez harriari haurtxoen **txiza** nahasten ziotela. Eta emakumeek bularrak sendotzeko, **artearen** azala, buztina eta **ozpina** nahasten zituzten, eta gero limoitara bota. Zenbat sufritu behar zuten apain egoteko; ez dago esaterik! Jakina, zenbaiten aldamenean **ez zen giro izango**, **zorabiatzeko** moduko **kiratsa** botako zuten batzuk.

Usain txarrak zirela eta Ovidio poetak eman zituen hainbat gomendio. Ovidio ez zen Egiptokoa baina kosmetika-gaiak jorratzen zituen eta jarraitzaile asko zituen: "Ars amandi" bere obran, esate baterako, aholkuak ematen dizkie emakume eta gizonezkoiei.

Emakumeei: "Egin kontu zuen gorputzei: ez dezatela usain txarrik bota, zuen **bernak** ez daitezela ilez **josi**... Ahoan usain gaiztoa duenak ez dezala **baraurik** dagoela berba egin..." Eta gizonezkoiei. "...Izan natural, hori da gizonaren dotorezia. Besteen aurrean txukun azaldu, hortzen zuria agerian. Azazkalak moztuta eraman, eta garbi.. Sudurzuloetako ileak ez daitezela bistan egon, eta zure ahoak ez dezala **akerraren** kiratsik izan".

Marco Valeriok hala esan omen zuen behin Mesalinari buruz. "Duen edertasun horren hiru laurdenak bere tokadoreko kaxatan daude sartuta. Gauero arropa eta hortzak kendu egiten ditu. Bere edertasuna era guztietako ehun pototan gordea dauka. Horren **begitartea** ez da berarekin oheratzen."

Marco Valeriok ehun poto aipatzen ditu. Horrek esan nahi du garai hartan ere bazela nolabaiteko industria kosmetikaren inguruan.

Greziako Korinto-n, adibidez, ukenduak pototan saltzen ziren eta Egipton, berriz, lurrin-ontziak dekoratu egiten zituzten errazago saltzeko.

Eta azkenik, esan faraoien hilobietan ez ezik Suhb-Ad erregina sumeriarraren hilobian ere aurkitu zituela Woolley arkeologoak hauts-ontzi kontxa modukoak, baita **bekainak** margotzeko orratzak ere, edo ukenduz betetako kaxatxoak, besteak beste.

Gorputza apaintzeko grina

Erreportajea

Gorputza apaintzeko grina

Nork berak jartzen dizkio gorputzari mugak eta batzuk gorputzari ukitu berria ematen saiatzen dira. Aldatzeko erak asko dira, horien artean tatuajea eta piercing-a gaur eguneko estetika eta modaren parte dira

gordin-gordinean

Gure artean gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira era honetako apaingarriak. Piercing-ak zein tatuajeak antzinako kulturetan dute beren jatorria. Talde bateko kideek helburu erlijioso eta magikoetan oinarrituz, beren gorputzak margotzen edo eta zulatzen zituzten. Mota honetako praktikak esaterako Indian, Afrikan eta Ozeanian ezagutzen dira.

Moda kontuak

Egun, ostera, mundu guztira zabaldua daude tatuajea eta piercing-a, eta biak dira, BODY ART deiturikoaren barruan, arlorik ezagun eta zabalduenak. Gero eta gazte gehiago dira gorputza apaintzeko asmoz, gorputzeko hainbat ataletan belarritakoak edo antzekoak jartzen dituztenak. Dena dela, Arrasateko Totem dendan tatuajeak egiten dituen Sara Gonzalezek

ez du uste tatuajea modan dagoenik, baizik eta, nolabait esateko tatuaje eta delinkuentziaren arteko erlazioa puskatu egin dela. "Gainera moda beti momentukoa izaten da eta hori ez da tatuajearen kasua", dio. Telebistak berak ere moda kontuan oso eragin handia du. "Telebistak mirariak egiten ditu, eta jendeak telebistan ikusitakoa kopiatzen du" hori uste du Aretxabaletako

Alberto ile-apaindegiko Alberto Mansok. Orain gutxi arte tatuajeak egiten zituen bilbotar bat izan zuten ile-apaindegian eta itxura denez jende asko animatu zen bertan tatuajea egitera. Joana Mirandak bertan egin zuen tatuajea Aste Santu inguruan eta oraindik adinez nagusia ez denez, bere amarekin joan behar izan zuen. "Bizkarraldean egiteko ideiaz joan nintzen baina marrazkia bertan

aukeratu nuen".
Orkatilan egitea ere
gustatuko litzaioke baina
aurrerago agian.



“Gaur egun laserraren bidez tatuajeak kentzeko teknikak oso aurreratuta dauden arren, oso garestiak dira”.

“Piercinga modan dagoela ikusirik, gero eta jende gehiago da mundu honetan lanean hasi dena eta sarri profesionala ez den jendeaz topo egiten da”

Tatuajea, azaleko grabatua

Mota eta adin guztietako jendea animatzen dela dio Sarak tatuajeak egitera. “Gazte jendea nagusitzen da gehien, baina badira euren betiko kapritxoak egitera etortzen diren gizon-emakumezkoak ere. Gehiengoari aholkatu egin behar zaio, baina eskertzen da norbaitek benetan zer egin nahi duen dakienean”. Jende gehienak, bestalde, tatuaje bat tamainaren arabera baloratzen du, baina garrantzitsuena lanaren konplikazioa dela dio Sarak. “Tatuaje txikia izan daiteke baina lan handia eskatzen duena”. Horretaz gain, bizi guztirako egiten den zerbait dela kontuan hartuz, kontuz ibili behar da tatuajeak egiterako orduan. “Kalitatea eta prezioa ez datoz askotan bat eta kasu horietan onena estudio batera sartzean tatuaje egilearen lanen argazkiak eskatzea

da”. Arlo honetan ere profesionaltasun osoz lan egin behar da, bizi guztirako den zerbait dela pentsatu behar baita. Gaur egun laserraren bidez tatuajeak kentzeko

dauden arren, oso garestiak dira. Beste kasu batzuetan, tatuaje bat desagertzeko, gainean beste bat egin izan duenik ere bada.

Piercingean garbitasuna beharrezkoa

Larraitz eta Mirari ahizpek piercingak hasieran behintzat garbitasun handia eta zainketa berezia eskatzen duela diote. “Zuloa egin eta hasieran oso ondo zaindu beharra dago, bestela infekzioak gerta daitezke. Normalean ez da arazo larririk izaten, baina badaezpada ere aholku batzuk ematen dituzte: hasieran eskuekin ez ukitzeko, beti garbi edukitzeko, betadine apur bat emateko...” Larraitzek eta Mirarik emandako

aholkuak jarraitu dituzte eta ez dute arazorik izan. Zuloak sendatuta dituzte dagoeneko. Larraitzek orain bi urte inguru zilborrean zuloa egitea erabaki zuen eta Bilbora joan zen horretarako. Profesionaltasun handia eta inpresio ona jaso zuen bertan, eta egun batetik bestera egin zuen ezpainetako. “Dena oso ondo zainduta eta garbi

erabilitako orratza datu pertsonalekin gordeta uzten dute”. Mirari bere ahizpa ikusita animatu zen bekainean piercinga egitera eta orain beste bat zilborrean egiteko asmoa du. Gainera ia minik ez ei du egiten beraiek adierazitakoaren arabera. Hori bai, materiala nahiko garestia dela diote, hau berezia izaten baita: azero kirurgikoa, titanioa, metakrilatoa... Horiek 800 eta 6.000 pezeta bitartean balio dezakete.

Gazteek nahiago izaten dute piercingak ikusten diren lekuetan egitea, zilborrean, sudurrean edota bekainean, baina badira mingainean eta genitaletan egiten dituztenak ere.

Zulaketak berehala egiten dira eta zulo bat egitera doan edonork, lehenengo belarritakoa aukeratu behar du. Behin hori aukeratuta esterilizatu egiten dute. Belarritakoak duen zuloa azalean margotzen da eta inguruan jela jartzen da orratza sartzean honek minik ez egiteko. Erabili eta botatzen den orratz batekin egingo da zuloa eta gero berehala sartuko da belarritakoa.

Profesionaltasuna eta kalitatea



Tatuajea eta
piercinga ere
profesionaltasuna
beharrezkoa da, besteen
gorputzean lan egitean
perfekzioa bilatu behar
baita. Piercing-a modan
dagoela ikusirik, gero eta
jende gehiago da mundu
honetan lanean hasi
dena eta sarri
profesionala ez den
jendeaz topo egiten da,
horregatik kontu izan
behar da eta alde
aurretik ondo informatu.
Sarak dioskunez,
piercing-a profesional
batek egin behar du,
honek materiala non jarri
behar den ondo jakin
behar baitu nerbio eta
muskuluak ez zauritzeko.

Badaude piercing eta
tatuajei buruzko
ikastaroak, baina
Sararen ustez egokiena
beste profesional batekin
ikastea da. "Nik
tatuajeak egiten dakien
profesional batekin ikasi
nuen, eta honek
piercingaren alde
teorikoa erakutsi zidan.
Dena dela, teknika
ikasitakoan, kalitatea
norberak duen
abileziaren arabera
da".

Bi gazteri elkarrizketa piercing-ari eta tatuajeari buruz

AEK: Piercingak baduzue? Non?

Aitor: Nik piercinga bekainean daukat.

AEK: Eta zuk?

Larraitz: Nik, berriz, sudurrean daukat.

AEK: Bakarra daukazue?

L: Bai.

A: Bai, nik ere bai, bakarra, bekainean bakarrik.

AEK: Tatuajerik?

A: Ba... nik pare bat dauzkat. Bat, hankan, esango genuke, "jemelos"ean edo, alde batean. Eta bestea, tripan, eskubitan.

AEK: Handiak al dira?

A: Ba... hankakoa nahiko handia, eta bestea, txiki-txikia: eguzki bat.

AEK: Piercingak eta tatuajeak aintzinako kulturetan dute beren jatorria. Talde bateko kideek helburu erlijioso eta majikoetan oinarrituz, beren gorputzak zulatu eta margotzen zituzten. Zuek majiarik sentitzen al duzue? Gorputza apaintzeagatik jarri al duzue?

A: Nik esango nuke adorno bezala. Gorputza apaintzeagatik. Besterik gabe, ja, ja, ja...

L: Nik ere bai. Estetika hutsagatik. Nahiz eta jakin, India aldean induismoagatik erabiltzen dutela emakumeak. Baina ez dut horregatik... zentzu berezirik gabe. Estetika hutsa.

AEK: Eta emakumeek erabiltzen dute bakarrik?

L: Nik dakidala behintzat bai. Sekula ez dut ikusi gizonaezkorik. Emakumeak beti txiki bat erabiltzen dute sudurrean, hori badakit.

AEK: Modan dago ala ez?

A: Ez dakit. Ez dakit modan dagoen. Nik uste dut, oso...

Jende gutxi ikusten zen, eta orain jende pila bat. Gehiengoak ez genuke esango, baina jendearen erdiak, behintzat, tatuajeren bat edo piercingen bat... Oso normala da ikustea.

AEK: Normala da ikustea?

L: Gaur egun bai. Nik jarri nuen garaian, orain dela 5/6 urte, inork ez zeukan. Sudurrean gainera! Hasieran hasi zen sudurretik. Momentu hartan anaiak eta biok jarri genuen eta ia inork ez zeukan. Orduan jendeak arraro begiratzen zuen

eta galderak egiten zituen: "zer, ez dizu molestutzen?", ez dakit zer... gaur egun, edozeinek dauka eta inor ez da harritzen ikusita.

AEK: Moda beti momentukoa izaten da eta hori ez da tatuajearen kasua. Betirako delako, alegia.

A: Bai, baina zuk tatuaje bat egiten duzunean, da dibujo bat edo marrazki bat zuk elejitu duzuna, eta hori, ez dakit... Zuk elejitu duzu, eta behin egiten duzun momentutik zure gorputzaren parte da. Ulertzen duzu?

AEK: Beste belarri bat edukiko bazenu bezala?

A: Hori da. Tatuajea zure gorputzaren parte da eta asimilatuta daukazu. Marrazki hori aukeratzen duzun momentutik ezin duzula aldatu.

AEK: Orduan, ez da moda?

A: Zurekin eramango duzu. Bai, baina moda, esaten nuen, jendeak eramaten zuen... lehen, garai batean, 100 pertsonatik batek baldin bazuen, orain, 100 pertsonatik 35/40 pertsonak tatuaje bat daukate. Alde horretatik nahi nuen esan. Baina berez, tatuajea da gauza pertsonal bat; bakoitzak elejitzen duena eta badakiena berarekin eramango duela bere bizi osoan. Kentzeko aukera ere badago, baina...

AEK: Piercinga zulatu zizueten eguna gogoan duzue? Gaizki pasa zenuten egun hartan?

L: Bai, noski. Ez, gaizki pasa ez. Baina inpresioa adibidez. Nik ordurarte bakarrik belarrarian egin nuen. Eta orduan, aurreneko aldia zen sudurrean. Ez nekien zer sentituko nuen ere. Baina da inpresio hori. Ez zen ezer ere izan: zulo txiki bat. Momentuko zulaketan nabaritzen duzuna, baina beste ezer ere ez.

A: Bekainekoa izan zen... gutxi gorabehera belarririkoa bezala. Bekaina da azal bat oso biguna, belarria bezala. Ez dauka sentidu handiegirik. Orduan, belarritakoaren antzekoa izan zen. Inongo minik ez nuen sentitu.

AEK: Beharrezkoak ziren prebentzio guztiak hartu zenituzten? Ala ez zenuten prebentziorik ezagutzen piercing-a egin aurretik? Garbitasuna, zainketa berezia,

infekzioak ekiditeko kremak edo ukenduak, ...

L: Nik printzipioz, garai hartan, ez zegoen oso zabaldua piercing-a. Behintzat leku askotan ez zuten egiten, baina gu enteratu ginen Hernaniko farmazian egiten zela orduan. Farmaziara joan, han zulaketa egin eta bertan eman ziguten, bai krema, eta baita nola sendatu, ... eta hori dena. Farmazia nola zen, beraiek farmazeutikoak, ...

AEK: Farmazia zelako konbentzitura zeundeten profesionalak zirela?

L: Behintzat seguridadea ematen dizu. Higiene aldetik eta. Alde horretatik behintzat, badakitela. Eta orduan, inongo, alde horretatik, beldurrik ez beldurrik, behintzat, ez.

A: Nik egin nuen piercing-a Holandan, Amsterdam-en. Baina zen Amsterdam, ikusten zenez, Euskal Herriarekin konparatuz, askoz denda edo, ... esango genuke... dira medikuen lokalak izango lirakeen bezala. Eta higiene handiarekin. Eta tatuajeak eta piercing-ak egiten dituzte. Eta kaleko, 1 edo 2 aurkitzen dituzu. Oso zabaldua dago. Orduan, ez dakit. Higiene aldetik ikusten zen toki garbia zela. Esertzen zaituzte hor, toki batean, dentistaren kamila bat izango balitz bezala. Eta higiene aldetik eta, ikusten zen nahiko ongi prestatuta zeudela.

AEK: Profesionala zen orduan bera? Esan nahi dut, nerbioak eta muskuluak non dauden kontrolatzen duen jendea, edo...

A: Niri iruditzen zait, baietz. Ikusten zen ongi montatuta zegoela eta nahiko... horretatik bizi zirela: tatuajeak eta piercingak egitetik bizi zirela, behintzat, lokal horretakoak. Orduan, inongo problemarik gabe, inongo deskonfiantzarik gabe joan nintzen.

AEK: Arazorik eman dizue inoiz? Gaiztotu zaizue?

L: Nik hasieran, aurreneko 6 hilabetetan edo, gaiztotu-gaiztotu ez zitzaidan egin, baina minberatuta eduki nuen. Eta okerrena zen, adibidez, sudurreko zuloa, behintzat, segituan ixten zela. Aldatzeko, edo atera orduko, 5 minutu pasa eta berriz beste bat sartzeko, lanak ematen zituen. Eta minberatuta denbora dexentez eduki nuen. Baina gero, 6 hilabete edo

pasa ondoren, inongo ezer ez dut sumatu. Oso-osoa normal.

A: Nik lehenengo 2 edo 3 hilabetetan oso gaizki eduki nuen. Oso gaiztotuta.

Niretzat, hor kulpa handia eduki nuela. Holandara joan nintzen eta piercinga egin nuen lehenengo egunean. Eta gero, 2.

edo 3. egunerako gaiztotu egin zitzaidan. Eta gehienbat, han eman genuen bizitzagatik. Jaten genuen nahiko gaizki.

Eta niretzat, zer ikusi handia dauka nola alimentatzen zaren. Piercing-a egin eta ari bazara hamburgesak jaten, parranda egiten eta ez dakit zer, gaiztotzeko aukerak kristorenak dira. Eta gaiztotu zitzaidan. Eta gero, sendatzeko, erosi nuen farmazian ur destilatua, edo sueroko ur horietako bat. Eta hori, gasarekin eta garbitzen nuen eta horrela sendatu nuen. Baina nahiko gaizki eduki nuen.

AEK: Gaur egun, laserraren bidez, tatuajeak kentzeko teknikak oso aurreratuta omen daude. Halere, oso garestiak omen dira. Ezer badakizu horren inguruan? Inoiz kentzeko gogorik izanez gero, laser hori badagoela jakiteak, lasaitzen zaitu? Edo garbi daukazu betirako dela tatuajea?

A: Nik printzipioz, tatuajeak egin ditut, eta oraingoz, behintzat, buruan daukat betirako direla, eta nirekin joango direla. Gero, entzun dut laserraren istorio hori existitzen dela, baina ez dut ezagutzen nire inguruko inor laserraren bidez kendu duenik, ez eta kentzeko asmorik duenik. Baina, behintzat, hor egotea... arrepenitzen den jendearentzat.

AEK: Edo tatuajearen gainetik beste bat egin. Esaten dute, baita ere, batzuk tatuaje bat tapatzeko beste tatuaje bat egiten dutela. Marrazkia ez zaielako gustatzen, ...

A: Hori ez dut entzun. Entzun dudana, bai tatuajeak arreglatu eta modifikatu. Eta igual, koloreak aldatu, ilundu, edo zer edo zer erantsi...

AEK: Oso ongi. Horixe zen. Eskerrik asko.

2001eko urtarrilean, AEK-k.

Oinarrizko piercing-ak

Gorputzeko zulaketek sor ditzaketen arriskuak
Zailtasunen arabera hurrenez hurren (gutxienetik gehienera)



Belarriko lobulu edo gingila	Bitxiak estu jartzeagatik `Queloides´-a eta infekzioak. Alde batera jartzea soilik gomendatzen da: erdialdean zuloa nerbio zainetatik eta arterietatik (zaingorrietatik) gertuegi gelditzen da eta. Malko isurbidea mintzeko arriskua ere handia da.
Bekaina	
Belarriko kartilagoa	Infekzio arriskua (zuloa pistolarekin egiten den kasuetan batez ere).
Ezpaina	Gaiztotu nahiz ahoko mina izateko arriskua ez ezik, hortzetako narritadura edo sumina ere sor ditzake.
Zilborra	Infekzioa sor dezake. Betiere igurtziengatik. Igurtziek orbainak sor ditzakete, gainera, arazo handiak ematen ditu sendatzen. Zilbor irtenak zulatzea berriz, ez da gomendagarria inondik inora.
Titi punta	Infekzioa sortaraz dezake. Haurdunaldian zulaketarik ez egitea gomendatzen da.
Mingaina	Mingain azpiko arteria (zaingorria) eta nerbioa mintzeko arriskua dago. Mingain puntan berriz, moteldura sortarazten du.
Alberto printzea	Zakilaren punta zeharkatzen duen piercingak odol jariora sortzeko arriskua du. Gaiztotzen ere oso erraza da.
Klitoria	Infekzioaz gain, lasai igurtzeko arazoak ematen ditu. Horretaz gain, sentimena ere gutxitu egiten du.
Sudurra	Sudurra zulatzeak infekzioa eta kartilagoko mina sor ditzake.

Lihogintza

Euskal Herriko langintzarik zaharrenetakoa da lihoa **irutea**. Tradizioz, emakumeen lana izan da eta emakumeak ia-ia nahita nahiez ezagutu beharrekoa. Lihoa erein, irun eta eho beharraz gain, emakumezkoek haurrak zaindu, sukaldeko eta etxeko lanak egin eta baratzeke beste zenbait lan ere egin behar izaten zituzten.

Lihoa eta gariaren bizitza oso parekoak ziren. Liho-haziak udazkenaren hasieran ereiten ziren, gehienetan irailak 29, San Migel eguneko ondorengoetan.

Lihoa ereiteko lurra aurrez prestatzen zen ongarri edo abonuz, familia bakoitzaren baliabideen arabera. Emakumeak gazte-gaztetan hasten ziren lihoa ereiten, hala, ezkon garaia iristerako ezkon saria prestatzeari ekinaz.

Lihorearen inguruan antzina-antzinako ohiturak daude. Adibidez, ohikoa izaten zen aitak etxeko neskatilari lur sail bat uztea, neskatilak berak erein eta landutako lihoarekin, pixkanaka, etxe berrira joaterako arropa zuria presta zezan.

Lihoa udan egiten zen, heldutako landareak eskuz atera eta fardeletan etxera eramaten zituzten, han, hazia ateratzeko.

Jaione Isazelaia: (Honi hitza kendu, eta bere ordeaz, batuan esango da ondoko hau)

<p>Hori itten zan karrama (garrama) baten hortzetatik behin eta berriro pasau eta juten zan hazi hori gorria jartzen zeben izara baera, juten zan, jausten. Eta gero itte zan galbae baten pasau eta garbitu. Eta hazizaborra eitten zan hurrengo urterako ta, eta inoiz erabili izan zan baita sendagaiak eitteko; enplastuak eta holako gauzak eitteko erabili izan ziren</p> <p>Hazia kenduta lihoa ibaietara edota putzuetara garraiatzen zuten gurdiz. Han, beratzen ipintzeko. Putzuak batzutan naturalak izaten ziren, eta bestela, lan honetarako propio egindakoak (linaputzuak). Urtean, 10 eta 20 egun artean egonda, lihoaren azaleko zurtoina bigundu egiten zen.</p>	<p>Hori egiten zen garrama* baten hortzetatik behin eta berriro pasatu, eta hazia izara batera erortzen joaten zen. Eta gero egiten zen galbahe batean pasatu eta garbitu. Hazia kenduta lihoa ibaietara edota putzuetara garraiatzen zuten gurdiz, han beratzen ipintzeko. Putzuak batzutan naturalak izaten ziren, eta bestela, lan honetarako propio egindakoak (Linaputzuak). Urtean, 10 eta 20 egun artean egonda, lihoaren azaleko zurtoina bigundu egiten zen.</p> <p>*garrama: lihoa txikitzeko erabiltzen zen tresna</p>
--	---

Behin lihoa **lehortu** eta labean xigortu ondoren, **kolpatu** (**lihoa jo**) egin behar

zen. Hau lan astuna zenez, gizonezko zein emakumezkoek egiten zuten. Horretarako, lihoa enbor edota **linarri** baten kontra kolpatzen zuten egurrezko mailu batzuez.

Gero, **trangaketa** zetorren. Honetarako, garbae (**tranga**) edo garbaria erabiltzen zen. Garba hau haitzezko bi oinek osatzen dute, behealdean gurutzatuta eta lotuta daudelarik. Goialdean, berriz, bi ohol ditu paraleloan eta hauen arteko zuloan beste txikiago bat ipintzen da, mugikor dagoela. Honek, gillotinaren moduan, kraskatu egiten du lihoa landarea. Lastoa kendu eta belar izpien zuntza ia garbi-garbi utziaz. Lan hau taldekako lana izaten zen. Lan hau burutzeko herrian indarra eta trebetasuna zuten emakume guztiak biltzen ziren. Eta aurrez, lihoa labean berotu behar zenez, zenbait familia elkartu arte itxaron behar zen.

Hurrengo lana, Bizkaian **ezpataketa** eta Gipuzkoan **sugasketa** deitzen zutena zen. Oraingo honetan landarea egurrezko ezpata moduko batez jo behar izaten zen, lihoari azala erabat garbitzeko.

Hurrena ia **kirrua**, txarrantxa edo rastriloa pasa behar zen. Ohol luze baten gainean jarritako burdinazko orrazia zen. Lihoa hortzen artean pasatzerakoan hiru zuntz mota eskuratzen ziren.

Jaione Isazelaia: (Honi ahotsa kendu eta batuan esango da

<p>Kirrua zan txarrantxan hortzetan orraztu ta gero eskuetan geratzen zan harigaia. Eta gero txarrantxaren hortzetan trabauta gelditzen zan harigaia, hori izaten zan amelua, amelua izaten zan bigarren mailako harigaia. Eta lurrian gelditzen zana edo aurreko txarrantza nasaisan hortzetan gelditzen zana, haure izaten zan mukarra, haure zan oso harigai bastua izaten zan. Harekin ba zakuak eta holako gauzak egiten zien. Eta gero harigai horrek, kirrua, finena, itten zaben harekin kopetak, itten zituzten.</p>	<p>Txarrantxaren hortzetan orraztu eta gero geratzen zen harigaiari kirrua deitzen zitzaion. Gero, txarrantxaren hortzetan trabaututa geratzen zen harigaia amelua zen; amelua bigarren mailako hari-gaia zen. Eta lurrean geratzen zena, mukarra zen. Hau oso hari bastoa izaten zen eta zakuak eta horrelako gauzak egiteko erabiltzen zen. Harigairik finenarekin, kirruarekin, kopetak egiten zituzten.</p>
---	---

Lihorik onena, behin **kopetan**, iruteko prest zegoen. **Gorua** 90cm. inguru neurtzen zituen eta iruleak besoa eta ezkeraldeko saihsaren artean ipintzen zuen gerriarekin eutsiz. Gorua luzeagoa zenean, eta beheago eseriz gero, zoruan ipini eta hankekin eutsi zezakeen. Eskuineko eskuan iruleak egur edota burdinazko pieza txiki bat izaten zuen.

Gorua eta linorrazaren artean liho-zuntza, hatzetatik pasatzean, hari bihurtzen zen. Bi eskuak erabiltzen ziren; ezkerak, lihoa kopetatik biltzen zuen neurri egokian gero bihurtu. Lotu behar izanez gero, esku bereko hatzekin egiten zen. Eskuinak, berriz, errotazio mugimendu azkarra egiten zuen haria ardatzean biltzeko. Lanean ari zela iruleak sarritan bustitzen zituen ezker eskuineko hatzak, haria menderatu, makurtu eta ardatza jiratu aurretik, haria osatu ahal izateko.

Irute lana, batik bat, negu partean egiten zen, eguraldi txarrak nekazal lanak burutzen uzten ez zuenean. Neguan, arratsaldean hasi eta gaua ondo sartu bitartean, irule bakoitzak 20 edo 30 liho-mataza prestatzen zituen, bakoitza hiru kilo ingurukoa. Irutearekin ez ziren, noski, lihoaren lan neketsuak amaitzen. Harilkoa ehotu aurretik, harria ardatzetik pasa behar izaten zen matazetan eta zuritu ere egin behar izaten ziren, gainean, behin eta berriz, pago errautsa zuen ur beroa botata.

E. Ortiz de Zarate

Arropak zuritzeko, lehenik eta behin, todero izenekoetara botatzen ziren. Hauetan, garbitu beharrekoa egosi egiten zen errautsetan. Hala, gainetik ur egosia botatzen zioten. Todorotik pasatuz gero, jantzi guztietan zehar pasa eta azkenean, azpitik ere ur beroa irteten zen arte, geratu gabe aritzen ziren egosten, etengabe ur beroa botaz. Gero, ontzen uzten zen eta hurrengo egunean garbitokira eraman, erabat garbitu eta akklaratzeko.

Behin nahikoa harilko pilatutakoan, azkenik, oihal luzean ehotzen ziren. Ondoren, izara, maindire, zapi eta baita hil jantziak egiteko era. Antzina gizonezkoek emakumeek adina ehotzen zuten. Gaur egun, ordea, gutxi izan arren emakumezko gehiago dabil jarduera honetan. Itziar Hubreugde da hauetako bat. Telarea (Ehungailua) prestatu, haria irazian jarri eta elkartzean oihala osatuko duen trama (bilbea) osatzea da ehotze lanik zail eta neketsuena. Nonbait, egiptziarrek asmatu omen zuten lan hau. Eurak hasi omen ziren lihoa erein eta gero oihal bihurtzen.

Lihoa irutearen inguruan oso folklore aberatsa geratu zaigu gizon eta emakumearen arteko harremanen gorabeheran. Pello lotsagabearengandik hasi eta maitemindutako Juan Bautistarenganaino helduz. Egia esan, ohikoa omen zen, behin iruten amaitu eta gero mutilak etxerako bidean laguntzera etortzea. Oso egoera aproposa zen festarako, eta, sarritan, baita maitemintzeko ere. Zenbait poesiak bestelakoa adierazi arren, iruleentzako, zorionez, guztia ez zen neke eta lan astuna izaten.

Kantua:

Neskak: O! Pello, Pello! Logale nauk eta jinen nizan ohera.

Mutilak: Irun ezan eta gero, gero, gero.

Irun ezan eta gero, gero bai.

Neskak: O! Pello, Pello! Irun diat eta jinen nizan ohera.

Mutilak: Astalka zan eta gero, gero, gero.

Astalka zan eta gero, gero bai.

Neskak: O! Pello, Pello! Astalkatu diat eta jinen nizan ohera.

Mutilak: Harilka zan eta gero, gero, gero.

Harilka zan eta gero, gero bai.

Neskak: O! Pello, Pello! Harilka diat eta jinen nizan ohera.

Mutilak: Jo zezan eta gero, gero, gero.

Jo zezan eta gero, gero bai.

Neskak: O! Pello, Pello! Jo ziriari eta jinen nizan ohera.

Mutilak: Argia dun eta, bihar, bihar, bihar.

Argia dun eta jin nizan bihar.

Kale-inkesta

KAZETARIA:

Egunon entzule! Atzo agindu bezala gaur modaz hitz egingo dugu. Baina moda kontuetan ulertzen duen jende asko dagoen arren kalera joko dugu. Ea kalean jendeak zer dakien modaren munduaz galdetuko dugu. Modari zenbaterainoko garrantzia ematen zaion gure gizartean jakin nahi dugu.

Kalean Amaia, gure lankidea, zain izango da honezkero eta agurtu egingo dugu Amaia.

Egunon Amaia!!

AMAIA:

Baita zuri ere.

KAZETARIA:

Zer nolako giroa duzu, hor Donostian? Giro ederra, ezta?

AMAIA:

Bai, egia esan behar badizut, sekulako giroa dago. Bainujantzia etxean utzita etorri naiz eta sekulako inbidia pasa beharko dut. Egiten duen eguraldiarekin jende asko hurbildu da gaur hona, Donostiara eguzki galdatan kolore pixka bat hartzeko gogoz, eguzki izpien bila.

KAZETARIA:

Eta topatu al duzu inor gurekin hitz egiteko, Amaia?

AMAIA:

Ba, bai. Hemen ditut bi emakume erosketak egitera etorrita poltsa handi batzuek eskuan aurkitu ditudanak.

Egunon bioi!

A eta B:

Egunon, bai!

AMAIA:

Arropa erosten harrapatu zaituztet, ezta?

A:

Bai, ezkontza bat dugu datorren hilean eta, ea osatzen garen.

AMAIA:

Janzerakoan modari erreparatzen al diozue zuek? Edo besterik gabe gustuko zerbait jantzi eta kito?

B:

Egia esan gustuko arropa janztea gustatzen zait, eta modakoa izan ala ez berdin zait, baina, beno, modatik kanpoko ezer ez dudala janzten uste dut.

AMAIA:

Eta ba al dakizue aurtengo udarako zein moda dagoen, zer nolako arropa-mota izango den?

A:

Nik ez dakit zein moda izango den, baina eskaparateetan ikusten dena izango dela pentsatzen dut, ezta?

B:

Nik entzun dut "punk" en estiloko arropak etorriko direla, baina gero eskaparateetan ez da hainbeste ikusten.

AMAIA:

Beraz, esan daiteke, eskaparateetako moda dela ezagutzen duzuen?

A:

Nik uste modako arropa, azken finean denok janzten dugula, dendetan besterik ez dutenez saltzen, zer erremedio!!

AMAIA:

Mila esker erantzuteagatik.

A eta B:

Zuri.

2. elkarrizketa

AMAIA:

Ea, hemen badabilta gazte batzuk eta hurbildu egingo naiz.

Egunon!

G:

Epa!

AMAIA:

Moda kontuetan eguneratuta al zaudete? Ba al dakizue zer nolako moda izango den uda honetan?

G:

Ez.

AMAIA:

Eta zure janzkera definituko al zenuke?

G:

Nik ez dakit nola janzten naizen. Niri gustatzen zaidan arroparekin eta kito.

AMAIA:

Baina denok ere berdin-berdin jantzita zaudete: galtza handi-handiekin, bota handi-handiekin, eta ikusten dudanez, bekainean ere hiruk behintzat piercing bat daukazue? Hori ez al da ba orain modan dagoena?

G:

Hala izango da.

AMAIA:

Piercing-a bekainean lehen ez zen ikusten eta orain gazte askori ikusten zaizue. Beraz moda bati jarraitzen diozue?

G:

Nik behintzat ikusi eta gustatu egin zaidalako jarri nuen. Baina egia da gazte gehienak berdin janzten garela. Lehen gehiago bereizten zen, punkiak, pijoak, heviak... Orain ez da hainbeste bereizten. Baina hala ere pijoak beti desberdin janzten dira.

AMAIA:

Eskerririk asko erantzuteagatik.

G:

Ez horregatik.

3. elkarrizketa

AMAIA:

Ea, emakume batzuk hemen daude eguzkia hartuz goxo-goxo bankuan eserita, eta ea hauek modaren inguruan zer dioten.

Egunon!

E:

Egunon!

AMAIA:

Zuek modaz ulertzen al duzue? Edo interesik ba al duzue?

E:

Modaz interesa denok daukagu. Batzuk esaten dute moda ez zaiela interesatzen, baina gero denok izugarrizko garrantzia ematen diogu itxurari eta janzteko moduari.

AMAIA:

Eta zer nolako moda da uda honetan bultzatuko dena?

E:

Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste dut kolore biziak direla udan eramaten direnak. Eta beti bezala tela finak, azken urteetan linua oso modan dago, eta aurten ere asko ikusiko dela pentsatzen dut.

AMAIA:

Urtero diseinu berriak ateratzen dituzte diseinatzaileek. Horrek zer esan nahi du? Modan ibiltzeko urtero arropa berria erosi behar dugula?

E:

Ez, urtero ez!! Bestela.....! Ezin dugu urtero arropa berria erosi eta erosi ibili. Normalean, gure etxean, behintzat, uda batean erosten den arropa bi urtez edo hiru urtez behin aldatzen da.

AMAIA:

Beraz, uda bizpahiru urtetan moda ez da hainbeste aldatzen?

E:

Moda aldatu edo ez, nire ustez, moda guk egiten dugu edo guk jartzen dugu, ezta?

AMAIA:

Eskerrik asko gure galderi erantzuteagatik.

E:

Ez horregatik!

Kale-inkestaren erantzun-orria

1. Nik behintzat ikusi eta gustatu egin zaidalako jarri nuen. Baina egia da **gazte gehienak desberdin janzten** garela. **Lehen ez zen bereizten, punkiak, pijoak, Heavyak... denak berdinak ziren.** Orain ez. Baina hala ere, **pijoak beti desberdin janzten dira.**
2. Egia esan gustuko arropa janztea gustatzen zait, eta **modakoa izan ala ez berdin zait. Modatik kanpokoa ere janzten dut.**
3. **Modaz interesa inork ez daukagu.** Batzuk esaten dute moda ez zaiela interesatzen, baina gero denok izugarritzko garrantzia ematen diogu itxurari eta janzteko moduari.
4. *Nik uste modako arropa, azken finean denok janzten dugula, **nahiz eta dendetan denetik saltzen duten, zer erremedio!!***
5. Nik ez dakit zein moda izango den, baina **Afrikan** ikusten dena izango dela pentsatzen dut, ezta?
6. Nik entzun dut **“heavy”**en estiloko arropak etorriko direla, baina gero eskaparateetan ez da hainbeste ikusten.
7. Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste dut kolore **ilunak** direla udan ematen direnak. Eta beti bezala tela **lodiak**, azken urteetan linua oso modan dago eta aurten ere asko ikusiko dela pentsatzen dut.
8. Ez, urtero ez!! Bestela...! Ezin dugu urtero **arropa berdinarekin ibili.** Normalean, gure etxean, behintzat, uda batean erosten den arropa bi urtez edo hiru urtez behin aldatzen da.

Gaur-biharko jantziak

Iraultza hitzarekin bakarrik uler dezakegu gaur-biharko jantziekin gertatu behar zaiguna. Etorkizuneko arropa giza gorputzaren bigarren azala izango dela kontu eginda, laster omen ditugu soinean estresari aurre egingo dioten arropak, lo hobeto egiten lagunduko dutenak, eguzkiaren erradiazioa xurgatu edo bakterioak hiltzeko gai direnak, asma ahala noski!, arropa eta jantzi harrigarriak. Eta guztia ehungintzaren baitan, diseinatzaile, kimikari, fisikari, ingeniari eta bestek, denek elkarrekin eta denek batera abiarazi duten iraultzagatik, hain zuzen. Ehun naturalei, hau da kotoi, artile, liho edota zetari. Nylon-ak edo likra-k jarraitu bazien eta azken hauei: poliester-rak, latex-ak edo goretex-ak. Orain mikrozentzen txanda, nonbait; taktel, suplez, suftek eta abar. Eta horien ondorioz, pentsa, arropa klimatizatuak hotzari eta beroari aurre egiteko teknologietan oinarritutakoak, alegia. Baita ere pertsonaren gogo-aldartera egokitzen direnak eta harrigarriagoak oraindik, hasieran esandako horiek, kanpotik jasotako estimuluei erantzungo dietenak; estresari aurre egiteko, hobeto lo egiteko eta abar. Iraultza beraz ehungintzaren bidez gaur-biharko jantzietan.